# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**5405**

**47/2012 FORU DEKRETUA, irailaren 25eko Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eskubide sindikalak Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuan xedatutakoari egokitzen dizkiona.**

Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren (uztailaren 14ko BOE) 10. artikuluak, Sindikatuetako kredituak eta baimenak murriztea deritzonak, ondokoa ezartzen du:

1. Herri administrazioetan eta haien mendeko erakunde, entitate, unibertsitate, fundazio eta sozietateetan, errege lege dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, ordezkari edo erakunde sindikalekin sinatutako funtzionarioentzako eta estatutupeko langileentzako akordioetan eta lan kontratudun langileentzako hitzarmen kolektibo eta akordioetan jasota dauden eskubide sindikal guztiak (izen horrekin edo beste batekin), Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan, Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan (RCL 1985,1980) eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean ezarritako edukiak gainditzen badituzte, sindikatuko eta ordezkaritzako eginkizunak betetzeko denbora ordainduari, sindikatuetako ordezkarien izendapenari eta lanera ez joateko erabateko dispentsei eta gainerako eskubide sindikalei buruzkoak badira, aipatutako arauetan ezarritakoari zorrotz lotuko zaizkio.

Hortaz, errege lege dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, ez dute baliorik izango ezta ondoriorik sortuko ere gai honen inguruan sinatu diren eta aipatutako edukia gainditzen duten itun, akordio eta hitzarmen kolektibo guztiek.

Nolanahi ere, negoziazio mahai orokorrek (eta horiek baino ez), hemendik aurrera, sindikatuetako ordezkarien lanera joateko betebeharra edo erregimena aldatzearen inguruan akordioak egin ahal izango dituzte, helburua bada ordezkariek beren ordezkaritza eta negoziazio eginkizunak arrazoizko eran gauzatu ahal izatea edo gainerako eskubide sindikalak behar bezala erabiltzea.

2. Artikulu honetan xedatutakoa 2012ko urriaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Kontuan hartuta, gaur egun, uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 59/2007 Foru Dekretuak onartu zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren langileen lan baldintzak arautzen dituen bigarren erabakiaren (ALHAO, abuztuaren 6koa) 50. artikuluko lehen atalean xedatutakoarekin bat etorriz, GOFEn atal bakoitzeko dagoen sindikatuko ordezkarien kopurua Sindikatu Askatasunari buruzko 2/1985 Lege Organikoaren 10.2 artikuluan adierazitakoaren bikoitza dela, nahitaezkoa da aipatutako araudiari egokitzea.

Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauak, abenduaren 18koak, bere 8. artikuluko 17. zenbakian, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoen Kudeaketari buruzko 15/1987 Foru Arauak, urriaren 30ekoak, 9. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO SERVICIOS SOCIALES

**5405**

**DECRETO FORAL 47/2012, del Consejo de Diputados de 25 de septiembre, que adecua los derechos sindicales en el Instituto Foral de Bienestar Social a lo dispuesto en el Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad.**

El artículo 10 del Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, BOE del 14, establece bajo el título “Reducción de créditos y permisos sindicales” lo siguiente:

“1. En el ámbito de las Administraciones Públicas y organismos, entidades, universidades, fundaciones y sociedades dependientes de las mismas, a partir de la entrada en vigor del presente Real Decreto-ley, todos aquellos derechos sindicales, que bajo ese título específico o bajo cualquier otra denominación, se contemplen en los Acuerdos para personal funcionario y estatutario y en los Convenios Colectivos y Acuerdos para el personal laboral suscritos con representantes u organizaciones sindicales, cuyo contenido exceda de los establecidos en el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto (RCL 1985, 1980), de Libertad Sindical, y la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, relativos a tiempo retribuido para realizar funciones sindicales y de representación, nombramiento de delegados sindicales, así como los relativos a dispensas totales de asistencia al trabajo y demás derechos sindicales, se ajustarán de forma estricta a lo establecido en dichas normas.

A partir de la entrada en vigor del presente Real Decreto-ley dejarán, por tanto, de tener validez y surtir efectos, todos los Pactos, Acuerdos y Convenios Colectivos que en esta materia hayan podido suscribirse y que excedan de dicho contenido.

Todo ello sin perjuicio de los acuerdos que, exclusivamente en el ámbito de las Mesas Generales de Negociación, puedan establecerse, en lo sucesivo, en materia de modificación en la obligación o en el régimen de asistencia al trabajo de los representantes sindicales a efectos de que puedan desarrollar racionalmente el ejercicio de sus funciones de representación y negociación o adecuado desarrollo de los demás derechos sindicales.

2. Lo dispuesto en este artículo será de aplicación el 1 de octubre de 2012.”

Puesto que en la actualidad, y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 50, apartado 1, del Segundo Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal al servicio del Instituto Foral de Bienestar Social aprobado por el Decreto Foral del Consejo 59/2007, de 24 de julio, BOTHA del 6 de agosto, el número de delegados sindicales en el IFBS por cada Sección duplica el contemplado en el artículo 10.2 de la Ley Orgánica 2/1985, de Libertad sindical, resulta necesario ajustarlo a la normativa citada.

El número 17 del artículo 8 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, puesto en relación con el artículo 9 de la Norma Foral 15/1987, de 30 de octubre, sobre Gestión de Actividades Económicas y Servicios Públicos Forales descentralizados, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para determinar y aprobar las condiciones de empleo del personal al servicio de esta Administración Foral.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- 2012ko urriaren 1etik aurrera, ordezkari edo erakunde sindikalekin sinatutako akordioetan jasota dauden eskubide sindikal guztiak (izen horrekin edo beste batekin), Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan, Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean ezarritako edukiak gaindituz gero, eta sindikatuko eta ordezkaritzako eginkizunak betetzeko denbora ordainduari, sindikatuetako ordezkarien izendapenari eta lanera ez joateko erabateko dispentsei eta gainerako eskubide sindikalei buruzkoak badira, aipatutako arauetan ezarritakoari zorrotz lotuko zaizkio.

2012ko urriaren 1etik aurrera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean sindikatu atal bakoitzeko izan behar diren sindikatuko ordezkarien kopuruak gehienez honakoa izan behar du:

-Langile Batzorderako hauteskundeetan botoen ehuneko 10 lortu duten sindikatuetarako: 2

-Langile Batzorderako hauteskundeetan botoen ehuneko 10 lortu ez duten sindikatuetarako: 1

Bigarrena.- Sindikatu atalek 15 eguneko epea izango dute, dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, sindikatuko ordezkarien izen-abizenak idatziz aurkezteko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langile Arloko Zuzendariordetza Teknikoari.

Hirugarrena.- Foru dekretu hau 2012ko urriaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 25a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero.- A partir del 1 de octubre de 2012 todos aquellos derechos sindicales, que bajo ese título específico o bajo cualquier otra denominación, se contemplen en los Acuerdos suscritos con representantes u organizaciones sindicales, cuyo contenido exceda de los establecidos en el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la ley del Estatuto de los Trabajadores, la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical, y la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del empleado Público, relativos a tiempo retribuido para realizar funciones sindicales y de representación, nombramiento de delegados sindicales, así como los relativos a dispensas totales de asistencia al trabajo y demás derechos sindicales, se ajustarán de forma estricta a lo establecido en dichas normas.

En particular, a partir del 1 de octubre de 2012 el número de delegados sindicales por cada sección sindical en el ámbito del Instituto Foral de Bienestar Social no podrá exceder de:

-Para aquellos sindicatos que hayan obtenido el 10 por ciento de los votos en la elección a la Junta de Personal: 2

-Para aquellos sindicatos que no hayan obtenido el 10 por ciento de los votos en la elección a la Junta de Personal: 1

Segundo.- En el plazo de los 15 días siguientes a la entrada en vigor de este Decreto Foral deberá comunicarse por escrito a la Subdirección Técnica de Personal del Instituto Foral de Bienestar Social por cada una de las secciones sindicales los nombres y apellidos de quienes ostenten la condición de delegados sindicales.

Tercero.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el 1 de octubre de 2012.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2012.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**5353**

**462/2012 ERABAKIA, irailaren 11ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, izendatu egiten da Villaluengako Administrazio Batzarreko bigarren kide kudeatzailea.**

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Villaluengako Administrazio Batzarrean, Félix Araico Montoya erregidore-lehendakaria hil delako, geratzen den kargu hutsa (2. kide kudeatzailea) bete gabe ez dagoelako beste hautagairik.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz (erabaki horren bidez ezarri ziren Arabako Administrazio Batzarretako batzorde eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta funtzionamenduari buruzko arauak), egoki jotzen da kide kudeatzailea izendatzea administrazio batzar horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Maiatzaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren 42/2008 Foru Dekretuak Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, erakunde horri dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

**5353**

**ACUERDO 462/2012, del Consejo de Diputados de 11 de septiembre, que designa Vocal Gestora Segunda de la Junta Administrativa de Villaluenga.**

La Junta Electoral del Territorio Histórico de Álava ha puesto en conocimiento de esta Diputación Foral la existencia de una vacante en la Junta Administrativa de Villaluenga producida como consecuencia del fallecimiento de D. Félix Araico Montoya, que ostentaba el cargo de Regidor-Presidente, sin que haya podido ser cubierta la vacante que queda (Vocal Gestor/a 2º) por falta de sustitutos electos.

A la vista de lo anterior, procede, conforme a lo dispuesto en los artículos 19 y 21 de la Norma Foral de Elección de Regidores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava y apartado Segundo del Acuerdo de la Diputación Foral 829/85, de 26 de marzo, por el que se dictaron normas sobre el nombramiento, constitución y funcionamiento de Comisiones Gestoras y Vocales Gestores/as de las Juntas Administrativas de Álava, designar a la persona que, en calidad de Vocal Gestor/a, ocupe la vacante existente en la citada Junta Administrativa hasta la celebración de nuevas elecciones.

El Decreto Foral nº 42/2008, del Consejo de Diputados de 20 de mayo, atribuye al Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, entre otros cometidos, el seguimiento del régimen electoral de las Juntas Administrativas, dentro del cual ha de comprenderse el de proponer las personas que nombre la Diputación Foral para ocupar tales cargos.